



Ebazpena, 2019ko ekainaren 12koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horren bidez 2018-2019 ikasturteko bigarren zikloko haur hezkuntzako, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdiaren 6.4) atala esleitzen da behin-behinean.

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduaren bidez, 2018-2019 ikasturteko bigarren zikloko haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdi egin zen (2018ko abenduaren 28ko EHAA).

Hezkuntza Saileko sailburuordearen 2018ko ekainaren 5eko Ebazpenaren bidez ebatzi zen behin betikoz aipatutako deialdia, 6.2) atalari dagokiona.

Aipatutako deialdiaren 6.4) atalean ezarrita dagoenaren arabera, deialdiaren 6.2) atalari jarraituta, eskabideak aurkezteko epea baino beranduago matrikulatutako ikasleek badute laguntza eskatzeko eskubidea.

Aipatutako deialdia arautzen duen Aginduaren 8. artikuluaen arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Behin-behinean esleitzea deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak.

Bigarrena: Interesdunak jakinaren gainean egon daitezen, deialdiaren behin-behineko esleipenaren zerrendak eta diru-laguntzen kopurua iragartzea; eta hala badagokio, diru-laguntza ukatzeko arrazoiak azaltzea <https://euskadi.eus> web-guneko iragarki taula elektronikoan.

Hirugarrena: Behin-behineko esleipen honen kontra alegazioak egin edo agiriak aurkez ditzake eskatzaileak bere interesen defentsarako. Alegaziook 15 egun balioduneko epean egin beharko dira, iragarki hau argitaratzen den egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 12an

Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea

